

KARMELE MUÑOZA ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2015eko irailaren 7an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

2.- UDALTZAINGOAREN LUR OROTARAKO IBILGAILUAREN RENTING BIDEZKO HORNIDURA KONTRATUA ESLEITZEA. BIGARREN DEIALDIA.

Xedea

Udaltzaingoaren lur orotarako ibilgailuaren renting bidezko hornidura kontratua esleitzea. Bigarren deialdia.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2014ko abenduaren 15eko sesioan Udal Osoko Bilkurak hornidura espediente honetako baldintza pleguak eta deialdia zabaltzea, onartu eban 14. erabagi bidez.

Bigarrena: Hiru enpresatara bidali da eskaintzak aurkezteko gonbitea: BBVA, CAIXA, eta E-RENTING.

Emondako epearen barruan eskaintza bakarra aurkeztu da: BBVA AUTORENTING SA.

Hirugarrena: 2015eko uztailaren 31n Correos-eko bulegoetan aurkeztutako eskaintza ekonomikoa ireki da, eta aurkeztutako eskaintza bat dator baldintza pleguetan xedatutakoagaz, Udaltzaingoaren buruzagitzak 2015eko abuztuaren 21ean emondako txostenaren arabera.

Xedea: FORD KUGA 2.0 TDCI 150CV 4X4 A-S-S TREND 5P

Kontratu epea: Hogeita hamasei (36) hilabete.

Kontratutako kilometroak: 135.000 km

Eskaintza ekonomikoa: 39.774,06€+BEZ%21(8.352,72€). Danetara:48.130,24€

Hileroko kuota (x36): 1.104,84€+BEZ%21(232,01). Danetara: 1.336,85€

Ondorioz, BBVA AUTORENTING SA enpresearen eskaintza onartzea proposatu da.

Argudioak

Lehenengoa: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartu dauan azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak prozedura negoziaturako xedatutakoak jarraituz bideratu da espedientea hau.

Bigarrena: Kontsignazino nahikoa dago gastu honetarako. RC 2015/110.

Hirugarrena: Behin betiko bermea (%5a) aurkeztu dau. 1.988,70 €

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontutan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udaltzaingoaren lur orotarako ibilgailuaren renting bidezko hornidura kontratua BBVA AUTORRENTING SA enpreari esleitzea.

BIGARRENA: Gastua xedatzea.

HIRUGARRENA: Jagokon iragarkia argitaratzea kontratugilearen profilean.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkatearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2015eko irailaren 15ean.

ONETSIA
ALKATEA